



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2012ko IRAILAREN 25ean EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2012ko irailaren 25ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Ainara Sarasola Arsuaga
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Leire Otegi Elola

Bere ezin etorria azaltzen du:.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
2012ko irailaren 4an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Leire Otegi Elola andreak bere zinegotzi kargua hartzeko aitortpena, hala bada.**
- 5. 2012 urteko ura eta zabor tasen hobari eskaeraren ebazpena, hala bada.**
- 6. Alkizako Eskolako komunitateak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Alkizako Eskolako komunitateak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Beste batzuk.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

9. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2012ko irailaren 4ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei jakinarazten die aurreko bilkuratik Alkatetza ebazpenik ez dela eman, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- IZADI LABORATEGIA	145,14€
- GAS NATURAL FENOSA	697,24€
- ECOFESTES	497,37€
- ASTIASARAN	726,00€
- TOLOSALDEA GARATZEN	240,00€
- IRURAKO UDALA	150,00€
- HERRI OSTATUA	1.126,00€
- JUANTXO GARMENDIA	139,15€
- ALLUR	500,00€
- ANDONI LARRAÑAGA	605,00€
- JAM ESPRESIO KULTURA	963,00€
- BEDEREN 1 KULTUR ELKARTEA	300,00€
- MARIA GARMENDIA	302,50€
- VODAFONE	392,85€
- GAS NATURAL FENOSA	591,43€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **7.375,68** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LEIRE OTEGI ELOLA ANDREAK BERE ZINEGOTZI KARGUA HARTZEKO AITORPENA, HALA BADA

Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaile andreak adierazi du Leire Otegi Elola andreak Alkizako Udaleko zinegotzi kargua hartzeko betebeharrak guztiak burutu direla eta Junta Elektoral Zentralak bidali duen kredentziala zuzena dela.

Alkate jaunak gonbidatu du bateraezintasun kausarik balu ekintza honetan aldarrikatzera, Leire Otegi Elola andreak ez dituela adierazi duelarik.

Apirilaren 5eko 707/1989 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzea beharrezkoa denez (Hauteskunde Erregimenaren Lege Organikoaren 108.8 artikuluekin erlazionaturik), Leire Otegi Elola andreak zin egin du bere karguari dagozkion obligazioak zintzo beteko dituela, Erregeari leialtasuna gordez eta Konstituzioa, Estatuko arau nagusi gisa bete eta betearaziko duela, kasu guztietan.

BOSTGARREN PUNTUA

2012 URTEKO URA ETA ZABOR TASEN HOBARI ESKAERAREN EBAZPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012 urterako ura eta zabor taseen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela ekainaren 27tik uztailaren 27rarte.

Aipaturiko epean hiru eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J.M.T. jaunari ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- C.C. andreari ur eta zabor tasetan % 75eko hobaria onestea.

HIRUGARRENA.- M.J.O. andreari ur eta zabor tasetan hobaririk ez onartzea, hobariak izateko beharrezkoak diren baldintzak ez dituelako betetzen.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ESKOLAKO KOMUNITATEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako eskolako komunitateak eginiko eskaera, non ondorengoak dioen:

“Udal agurgarri hori:

Idatzi honen bidez, Herri Eskolako klaustroak, beharra suertatuko balitzaiguke, Juanena etxeko sukaldea erabiltzeko baimena eskatzen dizuegu. Asteko egun batzuetan 10 irakasle elkartuko garenez mahai bueltan bazkaltzeko, eta egun dugun gelan kabitzea oso zaila egiten zaigunez, Juanenako sukalde eta jangela erabiltzeko baimena eskatu nahiko genizueke.

Besterik gabe, zuen berrien zain gelditzen gara. Aldez aurretik mila esker!

Eskolako komunitatea”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoak

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eskolako Komunitateak eginiko eskaera onestu, hau da, Don Juanena etxeko sukaldea eta jangela erabiltzeko baimena ematea. Bi gela hauen garbitasuna erabiltzaileek egin beharko dutelarik. Txukun eta arduraz erabili beharko dituztelarik aipaturiko gelak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ESKOLAKO KOMUNITATEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako eskolako komunitateak eginiko eskaera, non ondorengo dioen:

“Udal agurgarri hori:

Idatzi honen bidez, Herri Eskolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak, Juanena etxeko aldagela erabiltzeko baimena eskatu nahiko nizueke. Asteko egun batzuetan, irakasleek arropa egokia aldatzeko leku goxo eta eroso bat izan dezaten.

Besterik gabe, zuen berrien zain gelditzen naiz. Aldez aurretik mila esker!

Gorputz Hezkuntzako komunitatea”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herri Eskolako Gorputz Hezkuntzako irakasleak eginiko eskaera onestu, hau da, Don Juanena etxeko aldagela erabiltzeko baimena ematea. Txukun eta arduraz erabili beharko duelarik aipaturiko gela.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

8.1. AIZTONDOKO DENBORA BANKUKO SUSPERTZAILEAK EGINIKO ESKARA AZTERTU, HALA BADA

Ikusirik Aiztondoko denbora bankuko suspertzaileak eginiko eskaera, non ondorengo dioen:

“Jadanik 3 urte pasa dira Aiztondok Denbora Bankua sortu zenetik eta denbora honetan oso emaitza onak eman dituela uste dugu.

Momentu honetan Denbora Bankuak eskaintzen dituen jardueraren artean Euskara irakastea dago eta horretarako Alkizako Denbora Bankuko partaidea den I.I. prest agertu da euskarazko talde bat sortzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Jarduera honi buruzko azalpenak emateko bilera bat egin nahi du urriaren 2an, asteartea, goizeko 9:00etan Juanena etxean.

Hau dela eta, idatzi honen bidez, aipatutako aretoa erabiltzeko eskaera luzatu nahi dizuet.

Aldez aurretik, eskerrak emanez, agurtzen da

Aiztondo Denbora Bankuko suspertzailea”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Aiztondo Denbora Bankuko suspertzaileak eginiko eskaeraren berri hartzea, jakitera emanez, horrelako eskaerak Alkizako liburuzainak egin beharko dituela.

8.2. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO DINAMIZATZAILEAK EGINIKO EKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko dinamizatzaileak eginiko eskaera, non ondorengoa dioen:

“Alkizako Udal liburutegiak eta Alkizako eskolak 2011/2012 ikasturtean irakurzaletasuna eta liburutegiaren erabilpena sustatzeko programa bat jarri zuten martxan. Programa honek, liburutegia bertako ordutegitik kanpo eta eskola orduetan erabiltzeko aukera ematen du.

Datorren ikasturtean programa honekin jarraitu ahal izateko, Aiztondoko Denbora Bankuko partaidea den I.I. prest aurkeztu du bere denbora eskaintzeko. Guzti hau liburuzainaren gainbegiraketarekin gauzatuko litzateke.

Beraz, idatzi honen bidez, liburutegia asteartetan 14:30etatik 16:30etara eta ostiraletan 9:00etatik 10:00era irekitzeko baimena eskaera luzatzen da.

Aipatutako eskaera kontutan izango delakoan, agurtzen da

Aiztondoko dinamizatzailea”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondoko dinamizatzaileak eginiko eskaera onestu, hau da, liburutegia asteartetan 14:30etatik 16:30etara eta ostiraletan 9:00etatik 10:00etara irekitzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Aiztondoko dinamizatzaileari jakinaraztea, Alkizako herriari dagokion Denbora Bankuko txostena Udaletxean aurkeztu behar duela.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri intersdunari ematea.

8.4. ALKIZAKO ZENTRALEKO KANALA GARBITU ETA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, P.O.

Ikusirik P.O. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako zentraleko kanala garbitu eta konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: P.O. jaunak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Alkizako zentraleko kanala garbitu eta konpontzeko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

8.5. MANUEL ECHAIDE S.L.k EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Manuel Echaide S.L.-k eginiko eskaera, non Alkizan "Ejecución de muro de mampostería" eta "Mejora de caminos municipales de Alkiza, fase II Aldapa bailara" obrak egiteko jarritako 0182000671077 eta 0182000671078 abalak bueltatzeko eskaera egiten duen obrak amaitu zirelako.

Ikusirik aipaturiko obrak ondo amaitu zirela eta ez dela inolako arazorik egon.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Manuel Echaide S.L.-k eginiko eskaera onestu, hau da “Ejecucion de muro de mampostería” eta “Mejora de caminos municipales de Alkiza, fase II Aldapa bailara” obrak egiteko jarritako abalak 012000671077 eta 0182000671078 zenbakidunak bueltatzea, aipaturiko obrak ondo amaitu zirelako.

BIGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

8.6. 2012KO URRIAREN 21EAN EGINGO DEN EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA

Ikusirik datorren urriaren 21ean Eusko Legebiltzarreko Hauteskundeak ospatuko direla eta mahaikideen izendatze zozketa burutu behar dela.

Izendatze zozketari hasera ematen dio Alkate jaunak, CONOCE sistemaren bidez, ondoren aipatzen diren mahaikideak izendatzen direlarik:

LEHENDAKARIA: MIREN USUE ETXEBESTE EIZAGUIRRE

1. ORDEZKOA: TELMO ELIAS GOENAGA BILBAO
2. ORDEZKOA: MARIA ELENA CAJARAVILLE ORDOÑANA

1. BOKALA: M.DOLORES ARSUAGA GOENAGA

- 1.ORDEZKOA: MIREN KARMELE MOREA ARANZASTI
- 2.ORDEZKOA: M. DOLORES BELAUNZARAN SAN SEBASTIAN

2.BOKALA: JOSE MARIA ARSUAGA IRAOLA

- 1.ORDEZKOA: URKO ARANZABE SARALEGUI
- 2.ORDEZKOA: JOSE ANTONIO ZUBIAURRE ARANZABE

8.7. ESTADUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK, DONOSTIAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1.ZK. EPAITEGIAN TARTEKATURIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak batzarkideei berri ematen die Estatuko Administrazio Orokorrak, Estatuko abokatuaren bitartez, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1.Zk. epaitegian administrazioarekiko Auzi-errekurtsu bat tartekatu duela, Alkizako Udalak, Alkizako Udaletxeko fatxadan ez duelako Espainiako bandera jarrita, 39/1981 Legeak dioena bete gabe.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Espainiako bandera jartzeari onespena ematea, 39/1981 Legean araututa dagoena betez. Ahal den azkarrena egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Estatuko Administrazio Orokorrari, Estatuko Abokatuari berri ematea, eskatuaz tartekaturiko auzi-errekurtsoa bertan behera gelditzeko.

SEIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.25 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.